

Patri Urkizu idazlea *Suaren froga* nobelaren aurkezpenean. MAIALEN ANDRES / FOKU

Betiko gaia, aspaldiko begirada

Patri Urkizuk 'Suaren froga' nobela plazaratu du, Joanes Lopez Zeraingoaren bizitzan oinarrituta

Nerea Lauzirika

Atzo aurkeztu zuen Patri Urkizu idazle eta irakasleak (Lezo, Gipuzkoa, 1946) bere liburu berria: *Suaren froga*. Donostiako Udal Liburutegian egin zuen aurkezpena, Inazio Mujika Iraola editorearekin batera. Batez ere saiakerak idatzitakoa da Urkizu, baina nobela bat da obra berria, Erein argitaletxearen eskutik plazaratutako hirugarrena.

XV. mendearen bukaeran eta XVI. mendearen hasieran bizi izan zen Joanes Lopez Zeraingoaren bizitza kontatzen du Urkizuk liburua. Nobela historikoa da, idazleak berak adierazi duenez, baina gaiak badu gaurkotasuna. Mujika editorearen hitzetan: «Eztabaidak ordukoak dira, eta, beharbada, gaur egungo gazteen zat ez dira hain interesgarriak, baina, azken finean, liburu hau tolerantziari eta intolerantziari buruzko liburu bat da, eta hori betiko gaia da».

Institutuetan erabiltzeko proposa iruditzen zaiola gaineratu du Mujikak. Izan ere, modu dibulgatiboan dago kontatua, eta

egokia da garai hartako testu-gurua ezagutzeko. Gainera, edonork ulertzeko moduan idatzia dago; irakurle orok atera dezake ikasgairan bat nobelatik, Mujikak adierazi duenez.

Lopez ez da pertsonaia asmatua, nobela baten protagonista bada ere. Zerainen (Gipuzkoa) jaio zen, 1488an. Mujikaren arabera: «Joanes liburu askoko gizona zen, liburu bakarrekotak arriskutsuak izaten baitira». Hain zuzen ere, liburu bakarrekotak gizonen hil zuten *Suaren froga* nobelaren protagonista: Inkisizioaren sutan hil zen 1530ean, Granadan (Espainia).

Joanes Lopez Zeraingoa egiazko pertsonaia bat da, baina, jasotako informazio guztia josteko, asmatutako pasarteak ere badaude nobelan, noski. Lopezen jaioztatik, protagonistaren bizipenak garai horretako testuinguruarekin lotzen ditu idazleak, bi kontakizun horiek bakarra balira bezala emanez. Horrela, data eta gertakizun historiko azpimarragarriak tartekatzen dira Joanes Lopez Zeraingoaren bizitzaren narrazioan. Betiere,

irakurleak istorioaren haria ez galtzeko moduan kontatuta, argi eta zehatz.

Urkizuk ia-ia kasualitatez izan zuen Lopezen berri: «Parisko liburu denda batean nengoela duela urte batzuk, topatu nuen Marcel Bataillonren tesia: *Erasme et L'Espagne. Recherche sur la vie spirituelle du XVI siècle*. Irakurtzen ari nintzela begiak hautatu zidan nire nobelaren sujeta: *Joan Lopez de Zerain*». Urkizuk ez zuen pertsonaia haren berririk eta haren arreta erakarri zuen: «Bagenuen pertsona bat gure historian protestantea zena, baina ez genuen ezagutzen».

Hutsuneak betez

Bataillonren obran irakurri zuen Inkisizioak erre zuela Lopez, doktrina berriaren heresiak kutsatu-

ZUBIA ARGITALETXEA

Kolaboratzaileak behar ditugu eskola materialen edizioan laguntzeko. Ikasketen aldetik, filologoak, itzultzaileak eta irakasleak hobetsiko dira. Ezagutza eta esperientzia baloratuko da, paper edizioan zein digitalean. Interesatuok bidali hona zuen curriculuma: zubia@sanillana.com

tako hiru liburuxka idaztea leporatuta. Hari buruz gehiago jakiteko grina piztu zitzaion Urkizuri. Jakin-mina gidari, hainbat tokitan bilatu zuen Joanes Lopez Zeraingoari buruzko informazioa, eta, besteak beste, Madrilgo Agiritegi Nazionalean aurkitu zituen Inkisizioak hari egindako itaunketaren lekukotasunak.

Jaiotza eta heriotza datak argi bazituen ere, Urkizuk informazio gehiago behar izan zuen tarte hori bete eta garai hartako testuinguru behar bezala emateko: «Hu-

tsuneak betetzearren lagungarri izan zitzaidan Bataillonren liburu bera, eta berrirakurtzen hasi nintzen Erasmoren obra eta garai hartako historia argi ziezazkidaketen lanak». Testuinguru historikoa osatzeko informazioaz gain, Joanes Lopez Zeraingoari buruzko informazio zehatzagoa ere lortu zuen Urkizuk. Horrela lortu



Azken finean, denboran eta espazioan bidaia bat egitera gonbidatzen dut irakurlea, zerbait ikas dezakegulakoan»

«Bagenuen pertsona bat gure historian protestantea zena, baina ez genuen ezagutzen»

Patri Urkizu
Idazlea


du, asmatutako zatiak ere badauden arren, egiatzotasuna duen nobela bat osatzea.

Urkizuk irakasle eta idazle senak batu ditu *Suaren froga* nobelan: «Azken finean, denboran eta espazioan bidaia bat egitera gonbidatzen dut irakurlea, zerbait ikas dezakegulakoan». Izan ere, idazle oparoa ez ezik -patriurkizu.eus webgunean eskuragarri daude bere zenbait obra- irakasle ere izandakoa da Urkizu, eta egun erretiroa hartua du.

Atzo aurkeztu bazuten ere, hilabete hasieran argitaratu zen *Suaren froga* nobela. Liburu detan eskuragarri dago dagoeneko, baita Erein argitaletxearen webgunean ere.

SAN TELMO MUSEOA

Asteartetik Igandera: 10:00-20:00
www.santelmomuseoa.eus



• Museo bikoltza. Bideo instalazioa
Magia, materia eta beharra; Jose Mari Zabala

Proiektua kapitulu gisa aurkezten da, eta eguneroko bizitzako oinarritzko galekin lotutako gaiak biltzen dituzte, hala nola etxeko bizitza, hezkuntza, elikadura, sinesmenak edo entretenimendua.

STM

San Telmo Museoa

ZUBIA ARGITALETXEA

Errealizazio laguntzaile
baten bila gabiltza, hezkuntza proiektu berri batean lan egiteko.

InDesign, Photoshop eta Illustrator programak menperatzea eskatzen da.

Euskara maila ona behar da, ahoz zein idatziz.

Etxetik zein bulegoan (Etxebarri, Bilbo ondoan) lan egiteko disponibilitatea behar da.

Interesatuok bidali hona zuen curriculuma:

zubia@sanillana.com